

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Popgillus behar bezala funtziona dezan, enpresak hainbat baliabide behar ditu bere jarduera guztiak burutzeko, ikerketatik hasi eta produktuaren kontsumoraino.

Ikerketa eta Garapen (I+G) taldea produktua diseinatu eta hobetzeaz arduratzen da. Laborategiko lanean eta, beraz, formulazioak hobetzean zentratzen da. Hau funtsezkoa da *Aspergillus* detektatzen duen estaldura adimendun jangarria ekoizteko.

Administrazio eta Kontabilitate sailak ziurtatzen du enpresak indarrean dagoen legedia betetzen duela eta ordainketak, kontratuak eta beste prozedura funtsezko batzuk kudeatzen dituela. Bere eginkizuna funtsezkoa da negozioaren egonkortasunerako.

Gure hornitzaileak ezinbestekoak dira lehengaiak lortzeko. Ezinbestekoa da etengabeko hornidura bermatzen duten hornitzaile fidagarriak izatea, eskasia saihesteko eta nahi den produktuaren kalitatea bermatzeko. Hornitzaile jasagarriak ere lehenesten ditugu, ingurumen-inpaktua minimizatzen duten eta kutsadura murrizten laguntzen dutenetan arreta jarritz.

Bidalketa-saila beste baliabide garrantzitsu bat da. Eskaerak prestatzeaz, behar bezala antolatzeaz, behar bezala ontziratzeaz eta logistika-sailera eramateaz arduratzen dira. Hau funtsezkoa da Popgillus unitate bakoitza egoera ezin hobean iristeko eta ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela ziurtatzeko.

Diseinu eta Marketin saila produktuaren aurkezpenaz arduratzen da. Baliabide garrantzitsu bat da, bezeroek produktua nola hautematen eta ulertzen duten baita haiengana iristeko modurik onena.

Gure enpresako beste baliabide funtsezko bat Kalitate Kontrol saila da. Talde hau gure produktuak bete behar dituen osasun eta segurtasun estandar guztiak arretaz berrikustez arduratzen da. Haien lana funtsezkoa da, krispetak *Aspergillus* onddoaren kutsatzailerik gabe daudela bermatzen duelako, horrela kontsumitzaileen osasuna babestuz. Gainera, Kalitate Kontrolak prozesu guztiak behar bezala dokumentatuta daudela eta produktuak salmentarako beharrezko ziurtagiriak lortzen dituela ziurtatzen du.

Azkenik, enpresak logistika eta banaketa sistema sendoa bat behar du produktua lantegitik supermerkatuetara eramateko.

Baliabide horiek guztiek Popgillusi enpresa konpetente gisa jarduteko aukera ematen diote, produktu segurua eskainiz.